

Makina erremintak marka denak hautsi ditu

Makina Erremintaren Espainiako Biurteko Azokak (BIEMH) XXV. urteurrena beteko du aurten. Nazioartean ospe handia lortu duen biurtekoa Barakaldoko BECen egingo da, martxoaren 3tik 8ra bitartean.

DANIEL UDALAITZ

MAKINA ERREMINTEN Fabrikatzaileen Elkarteak (AFM) datorren hilabeterako antolatu du Makina Erremintaren Espainiako Biurteko Azoka (BIEMH). Eta 2007an bere historiako fakturazio markak hautsi ondoren ospatuko du, hain zuzen ere. XXV. urteurrenaren testuinguruan, kontuan hartzekoak dira nazioartean lortutako gailentasuna eta maila aparta, hala alde teknologikoan nola komertzialean. Garrantziaren araberako hurrenkeran, BIEMH azoka sektoreko laugarrena da munduan, eta industria esparruko erakusketa handiena Espainiako Estatuan. Batez ere Euskal Herrian kokatu dira makina erremintaren sektoreko enpresak, EAEn bereziki, eta, berebiziko indarrez, Bizkaian eta Gipuzkoan. Laurogeita hamarreko hamarkadako krisialdiak ixtera bultzatu zituen enpresa batzuk, eta kontzentratzera beste batzuk; horrek guztiak enpleguen galera eragin zuen. 2007ko bukaeran 5.650 langile biltzen zituen sektoreak.

BIEMH maila teknologiko handiko erakusleihu bihurtu da sektoreko fabrikatzaile eta banatzaile nabarmenenentzat, elkarren arteko merkataritza harremanak osatzeko inguru ezin hobea. Bertan bat egiten dute mundu zabaleko enpresa garrantzitsuenek, produktu eta berrikuntzak erakusteko asmoz; aldi berean, sektoreko enpresa nagusiek garatu dituzten azken teknologia, aplikazio eta zerbitzuak zuzen-zuzenean ikus eta ezagutu ditzakete mundu osoko bisitariek. Biurteko Azoka azkenekoz 2006an egin zen,



2006ko BIEMH azokan makina erreminten funtzionamendua ikusteko aukera izan zen.

BECen hura ere; ordukoan, 1.752 enpresa erakusketarik eta 39.041 bisitarik hartu zuten parte, 72 herrialde-tatik etorrita. Aurten zifra horiek gainditzea espero da.

Munduko fabrikatzaile eta esportatzaile nagusien artean

Makina erremintaren euskal industriak nazioartean duen garrantzia nabarmena da. Izan ere, ekoizpenaren ikuspegitik, gure industria munduko bederatzi handien artekoa da, eta Europar Batasuneko hirugarrena. Esportazioen bolumenari dagokionez, zortzigarren herrialdea da.

2006ko erosle nagusiak fakturazioaren arabera (eurotan)

✓ Alemania	ia 87 milioi
✓ Frantzia	ia 53 milioi
✓ Mexiko	46 milioi
✓ Italia	ia 44 milioi
✓ AEB	ia 43 milioi
✓ Txina	ia 38 milioi
✓ Erresuma Batua	28 milioi
✓ Portugal	26 milioi
✓ India	20 milioi
✓ Brasil	14 milioi

Globalizazioa dela eta, enpleguen galera ez da etengo

Espainiako Estatuko makina erremintaren sektorea batez ere EAEn kontzentratzen da, Gipuzkoa eta Bizkaian nagusiki. Sektore horrek hainbat ekoizpen krisialdi bizi izan du azken hamarkadan, eta, ondorioz, baita enplegu krisialdiak ere, ez soilik Euskal Herrian, baita Europa osoan ere. Izan ere, sektore horretan 217.500 langile ziren Europa osoan, 1990ean; 2006an, aldiz, 140.445 baino ez (betiere azken datuen arabera). Euskal Herrian ere sektoreak maila bereko krisialdia izan du: 1990ean 7.328 langile zituen; 2006an, berriz, 5.647 baino ez. Adituen ustetan, enplegua galtzeko joerak aurrera egingo du, baina ez indar handiz.

Enpleguen galera oso lotuta dago ekoizpenaren balioarekin; horretan ekonomiaren globalizazioak eragiten du. Izan ere, globaliza-

zioak ekoizpenaren eta kontsumoaren lekualdaketa ekarri du, mendealdeko herrialdeetatik ekialdekoetara. Eta, Europako herrialdeen artean, gero eta gehiago jotzen dute ekoizpen prozesuko fase ugari kanpora bidaltzera. Gainera, material berriak txertatzeak laneskuaurre murrizketa dakar.

Langile kopuruak (2006)

✓ Alemania	65.147
✓ Italia	28.390
✓ Suitza	11.650
✓ Erresuma Batua	7.500
✓ Frantziako Estatua	7.400
✓ Txekiar Errepublika	7.200
✓ Espainiako Estatua	5.647
✓ Austria	2.444
✓ Belgika	1.977
✓ Suedia	1.400
✓ Finlandia	980
✓ Herbehereak	710

Azken hamar urteotan, atzerriko 120 herrialdeetara esportatu du produkzioaren %58a; bolumen horren %70a industrializazio maila handiko eta garapen teknologiko aurreratuko herrialdeetara. Gure hiru bezero garrantzitsuenak Alemania, Frantzia eta Italia dira. Bezero ospetsuenen artean, aeronautikaren eta automobilgintzaren esparruetako enpresa transnazionalak daude, besteak beste: General Motors, Ford, Chrysler, BMW, Mercedes Benz, Volkswagen, Peugeot, Renault, Citroen, Volvo, Nis-

san, Boeing, Mc Donnell Douglas eta Airbus. Makina erremintaren euskal industriak 2.000 modelotik gora ekoizten ditu eta horien guztien %76a zenbakizko kontrolak dira.

Gure makina erreminta sektorea kalitate handikoa da: urte luzetan nazioarteko merkatuetan lehiatzeak emandako eskarmentua, eta izandako eboluzioa lagun, sektoreak ulertu du oso garrantzitsua dela bezeroei beren lehiakortasuna eta kalitatea hobetzeko erantzun pertsonalizatuak ematea. Hau da, gaur egun makina erremintako

2007an, makina

erremintaren sektoreak

bere marka hautsi du,

1.000 milioi eurotik gora

fakturatu baitu

tresneria “neurritza” produzitzen da, bezeroen nahi eta beharren arabera.

Fakturazioak mila milioi euroko muga gainditu zuen 2007an

Euskal makina erremintaren sektoreak mila milioi eurotik gora fakturatu zuen 2007. urtean; hala, bere historia-ko marka ezarri zuen. Hain zuzen ere, %7,3an gainditu zuen 2006ko fakturazioa (ia 979 milioi eurotara iritsi zen). 2007ko esportazioen balioa 615 milioi eurokoa izan da; hau da, %10,3 hazi da. Gainera, sektorearen ekoizpen guztiaren %58,6a izan da. Produkzioak goraka egin du urtez urte, baina orain arte ez zen inoiz 2001eko fakturazio marka erdietsi (990 milioi eurokoa). Esaterako, 2004an ia 822 milioi euro fakturatu ziren, eta 2005ean, 904 milioi euro baino gehixeago.

Esportatutako makina motari erreparatuta, azken urteetan fresatzeko makinak saldu izan dira gehien atzerrian. Are gehiago, fresatzeko makinaren nagusigoa sendotu egin zen 2006an: 122 milioi euro baino gehiago saldu zen, eta urtearteko bilakaera %22,5ekoa izan da. Harroketak bidezko makinaren esportazioa deformazio bidezkoena baino egoera hobean dago: %22,5 hazi dira lehen multzoko makinaren esportazioak, eta %2,9 jaitsi bigarrenekoak. ■



ARGITALETXEAREN AZKEN ARGITALPENAK




FTI - Antzerkiola Imaginarioaren liburuak

8 Olivetti poetiko - Mundopolski, erreboltaren ziaboga

Yuri Sam. Otoitza - Au Revoir triunfadoreak

Yorick Liburudendan edo
www.libreriayorick.com eskura ditzakezu

San Frantzisko, 15ren parean, 48003 - Bilbako / Tel: 944 795 287 / www.libreriayorick.com / info@libreriayorick.com